

Bizkaiko Batzar Nagusien aktak bizkaieraz jasotzea dago baldintzen artean (9. orrian albistea).

“Imajinatzen duzue Andaluziako parlamentuko aktak andaluzieraz jasotzea? Ba gure probintzianismoa horraino iristen da”

@boligorria

“Baina Euskaltzaindia non dabil? Epailea! Txartel Gorria!”

@zaldieroa

“Eguerdian Euskadi Irratian Andres Urrutia euskaltzainburuak esan du ados daudela Bizkaiko Batzar Nagusiekin”

@garaigoikoa

“25 urte inguru da horrela dihardutela Batzar Nagusietan, eta ez dut uste eraginik izan duenik batuaren aitortzan”

@AnaisNi



STOPTIP

CETAren zati handi bat indarrean sar liteke jada

Unai Brea
@unaibrea

Ez zen ustekabekorik izan eta Europako Legebiltzarrak Kanada eta EBren arteko CETA hitzarmenaren alde bozkatu zuen otsailaren 15ean, Estrasburgon egindako saioan. 408 diputatuk eman zuten aldeko botoa, 254k aurkakoa, eta 33 abstentzio izan ziren. Kanpoko aldean, ekintza ikusgarria egin zuten itunaren aurkariak: lurrian etzanda, euren gaintik igarotzera behartu zituzten legebiltzarreko saiora zihoazen parlamentariak, “CETA onartzea herritarrak zapaltzea dela” irudikatzeko.

Behin Eurolegebiltzarrak onartuta, Batasuneko estatu guztiek –zehazki, haien parlamentuek– banan-banan onespena ematea da hitzarmena indarrean guztiz

sartzeko hurrengo eta azken urratsa. Prozesu horrek luze joko du, baina hala ere, EBri bakarrik dagozkion eskumenekin zerikusia duten parteak –CETAren zati handi bat, beraz– aplikatzen has litezke jada.

Europako Batzordearen hasierako asmoa izan zen Eurolegebiltzarraren onspena nahikoa izatea CETA indarrean sartzeko, baina hainbat estatutatik iritsitako presio politikoak zirela-eta amore eman behar izan zuen iazko udazkenean. Hala ere, Cecilia Malmström batzordeko Merkataritza komisarioak erdibide bat lortu zuen: Legebiltzarraren aldeko botoa aski izatea itunaren zati batzuk behin-behinean indarrean sartzeko. Datozen hilabeteetan ikusiko da nola gauzatzen den hori.

“Ez genuen uste egun batetik bestera haurreskola itxi zezaketenik”

OIER IMAZ, ZIBURUKO LUMA HAURRESKOLAKO GURASOA

Eskualdean, euskarazko haurreskola bakarra da Ziburuko Luma. 12 ume hartzen zituen, bat-batean haurreskola itxita aurkitu duten arte. Luma Elkarteko Administrazio Kontseiluaren erabakia “lekuz kanpoko” dela dio Imazek: “Ez genuen uste zerbitzu publiko bat, oinarriko behar bat, modu horretan eten eta 12 familia aukerarik gabe utzi zitzaketenik”. Zorionez, “Udalak jarrera eraikitzailea agertu du” eta haurreskola berriz irekitzeko elkarte berria ari dira osatzen. **ARGIA.EUS (2017-02-20)**

